

## «Txerokee» izeneko diskoa erregalatu zioten atzo kolega gazteek Laboari

«Ez dut hau omenaldi gisa hartu, egin dudan lanaren aitoren bezala baizik», esan zuen

Joxean AGIRRE, Donostia

«Ez dut disko hau omenaldi gisa hartu, nere bizitzan zehar egiten saiatu naizen lanaren aitoren bezala baizik», esan zuen Mikel Laboak, bere kanta zenbait oinarritzat hartu eta euskal musika talde gazteek eskaini dioten diskoaren aurkezpenean.

Atzo eguerdiarte Donostiako Xaribarin bildu ziren diskoan parte hartu duten talde horien ordezkariak eta guztien bozeramale bezala Xabier Montoia, M-ak taldeko kantaria eta idazle ezaguna mintzatu zen. «Captain Beefheart-i egin zioten diskoa ikusi nuenean bururatu zitzaidan gure artean ere gisako disko bat egiteko posibilitatea eta Mikeli eskaini behar zitzaiola pentsatu nuen, ez baitago gazteentzako Laboak beste itzalik duen kantaririk», esan zuen Xabierrek aurkezpenari hasiera emanez. «Ez da, beraz, ideia original bat. Gisako diskoak erruz eman dira argitaratara Britainia Handian eta EEB-Betan», segitu zuen bere diskurtso erdi inprobisatuarekin, jendea pin-txoetara oldartzen hasi zen bitartean.

Mikel Laboari kolega gazteek eskaini diote disko honetan hamaika talde hartu dute parte, «hasi heavy talde batekin eta trikitixa jotzen duten batzuekin bukatuz», Montoiak esplikatu zuenez.

Karkaxa, BAP, Kiowak, Negu Gorriak, Delirium Tremens, Bukaera, Su ta Gar, M-ak, Pottoka, Katarain eta Tapia eta Leturiak osatzen dute bakoitzak kanta batekin partaidetza bitxi eta nahasi hori, ingrediente askotakoa baita Mikeli atzo eman zioten erregalaoa.

Laboak bere aldetik ez zuen hitz erdi bat esan Xaribariko aretoa be-



Mikel Laboa, diskoan parte hartu duten taldeen ordezkari eta artistekin batean. GALLEGO

tetzen zuen jendearen aurrean. Norbaitek hitz batzu eskatzen zizkionean, geroago, geroago», erantzuten zuen, «oraindik argazki bat atera behar dugu denok batean». Argazki famatu hori pintxo bandedjak erabat hustu zirenean egin zuen Jose Mari Zabala argazkilaria ekipo osoa futbol talde bat bezala formatu ondoren.

Bien bitartean Mikeli iheskor agertu zen, ohi bezala, eta «talde hauek egin duten nere lanaren irakurketa interesgarria iruditu zait», esan zuen diskoaren edukiaz bere iritzia eskatzean.

### Hamaika talde

Mikel Laboaren unibertso musikalak apenas inolako zubirik duen disko honetan parte hartu duten tal-

deenarekin. Galaxia desberdinetakoak direla esan daiteke, baina hala ere badago kolega gazte horien eta Ez Dok Amairuko aitabitxiaren artean puntu komunik, guztiek beren bidearen bila erakutsi duten borondate experimentalista, esaterako.

Talde bakoitzak Mikel Laboaren kanta bat aukeratu du eta bere irakurketa burutu du. Negu Gorriaren rap-a; Su ta Gar-en heavy-a; BAP, Karkaxa eta Bukaera-ren hardcorea; Delirium Tremens, M-ak eta Kiowak taldeen rock-a eta Tapia eta Leturiak egin duten musika experimentalista eta hori gutxi balitzan Pottokak eta Angel Katarainen partaidetza bereziak aurki daitezke diskoan eta guzti horren estalki giosa Zumetaren azala du. Partaidetza hori dohanik egin dute denek eta diske-

txeak prestatu dituzte beren estudioak grabaketak egiteko.

Diskoaren salmentarekin bilduko den dirua Seaska-rentzat izango da eta euskal musika taldeok eta Mikel Laboak berak izan duten jesto hori eskertzerat etorri zen atzo Jean Louis Maitia, Iparraldeko ikasteolen presidentea.

Behin eta berriz, ekitaldiaren arduradunek omenaldi hitza sahiestu egin zuten eta zeharkako itzurpi-deak erabili zituzten disko honen helburua aipatzerakoan. Mikel Laboak berak ere oso garbi esan zuen: «Oraindik ez naiz erretiratu eta ezin daiteke omenaldi bezala kontsideratu ekitaldi hau. Aurrera begira zer asmo ditudan? Betikoak, kantaldiak prestatu eta kantaaldiak ematen segitzea da nere asmoa».

## Fernando Arenaza, ganador del XXI Memorial de Pintura «Elías Salaverría» de Lezo

Donostia

El pintor bergarés Fernando Arenaza Ezenarro, ha resultado ganador del XXI Memorial «Elías Salaverría», certamen de pintura que patrocina el Ayuntamiento de Lezo y la CAM de Donostia.

Mañana se inaugura la exposición de las obras presentadas en Andreone Kultur Etxea y a las ocho de la tarde se entregarán los premios a los ganadores.

Arenaza ha sido galardonado por el cuadro «Beste Bostgarren Mendurrena II», un tríptico con dos abstracciones objetuales y en el centro dos rostros con rasgos acusados de indígenas latinoamericanos.

### Mikel Gamborena, segundo premio

Un segundo premio le fue otorgado a Mikel Gamborena Díaz, de Pasai Antxo, por su cuadro «Sin título» y un tercer premio recayó en María Angeles Amutxategi Esnaola, de Orereta. Se concedió un accesit a la joven pintora de quince años, Nagore Martínez Alvarez, de Oiartzun, por su obra «Torso».

Esta misma joven artista recibió el primer premio en la categoría infantil, siendo el segundo premio para Igotz del Teso Zaitegi, de Lezo, por su obra «Londres baserria» y un tercero para Idoia Aizkotreta Urkizu, de Lezo, por «Zuhaiztien freskotasunean».

En la categoría infantil, el premio único fue para Eduardo Arbeloa Lobato, con «Ratón de Getaria».

Por último, un premio destinado a los artistas locales lo recibió Aitor del Teso, por su cuadro «Mirandaola».

La exposición «La tradición japonesa del envoltorio» se